

Fedea krisian dagoen garai hauetan, bogan jarraitzen du espiritualitate bila Vatikanoko, Jerusalem, Meka, India edota Hego Amerikara bidaiatzeak. Denak balio du barne bakea berreskuratzeko. Hemen bertan ere, Done Jakue Bideak eta Xabier, Arantzazu eta Loiolako santutegiek bisitari asko eta asko erakartzen dituzte urtero. Eta noski, turistak egonda, negozioa egiten duenik ez da falta.

EUROPAN, urtero 30 milioi pertsonak erlijioarekin lotutako bidaiaren bat egiten du, turismo erlijioso definitzea zaila den arren. Elizak eta katedralak bisitatzera doanak turismo erlijioso egiten al du? Fedegatik bidaiatzen dutenak erromesaldi deitzen diote euren txangoari, eta ez turismo. Kontuak kontu, eta muga lauso horiek aintzat hartuta, gune erlijiosoek urtero 220-250 milioi bisitari jasotzen dituzte, horietatik 150 milioi inguru kristauak. Vatikanoko, Lourdes (Frantzia), Fatima (Portugal), Meka (Saudi Arabia), Lur Santua, India, Birmania, Guadalupe (Mexiko) eta Aste Santuan Espainia hegoaldea bezalako lekuek milioika lagun hartzen dituzte. Dena den, munduko ia herri eta txoko guztietan aurki daitezke erlijioarekin lotutako turismo guneak.

Katedralak, santutegiak, hilobiak, ibai sakratuak, tenpluak eta amabirjinak—kristautasunaren peleginazio lekuen %80k amabirjinarekin du zerikusia— dira erakargarri nagusiak. Gertaera zehatzek ere eragina dute; duela gutxi Joan Pablo II.a Aita Sainduaren heriotzak mugitu zuen jendetza gogoratzea baino ez dago. Edota hurbilago, Xabierko Frantziskoren eta Done Jakue Bidearen urteurrenek. Ospakizun erlijiosoek, beatifikazioek edo Mekarako urteroko deiak ere jende andana mugitzen dute.

Interesa handia izanik, dagoeneko turismo erlijiosoan espezializatutako aldizkariak eta bidai-agentziak daude. Katalunian sortutako Turismoreligioso.info webgunean, esaterako, gaiaren inguruko informazio anitzaz gain bidaiak antolatzen dituzte, taldeak osatuz. Francisco Canals webgunearen kudeatzailearen arabera, orriak urtebete eskas darama zabalik eta hileroko 3.000 eta 4.000 bisita artean jasotzen ditu, gehienak Latinoamerikatik. Catholic.net orrialdean berriz, Vatikanora bidaiatu eta Aita Sainduarekin bildu ahal izateko zer egin azaltzen dute, besteak beste.

Hiri santuen negozio borobila

Interes horretaz baliatu direnak ere ez dira gutxi. Santutegi eta gurtze gune askoren inguruan—bereziki Europan—, museoak, aisialdi guneak, hotelak, dendak, era guztietako zerbitzuak... ireki dituzte, “hiri santuen” amua aprobetxatuta. Vatikanoko izango da jende—hilean 12 milioi bisitari inguru— eta diru gehien mugitzen duenetakoa. Bertako katakonbak, elizak eta

MIKEL GARCIA
Argazkiak: Dani Blanco

**Lourdesek sei milioi bisita jasotzen
ditu urtean eta ostatu gehien
eskaintzen duen Frantziako bigarren
hiria da. 720 milioi euroko sarrera
fakturatzen du urtero**

museoak bisitatzeko ez da merkea—are gutxiago igogailua erabili behar izanez gero— eta negozio komertziala handia da: hala nola, liburu-dendak, oroigarri sakratuak edota enkargu bidezko bedekapenak, korreoz bidaltzen direnak. Saltoei pribatuek Vatikanokoaren inguruan lortzen dituzten irabaziak ere ez dira nolana hikoak: liburuen eta oroigarri sakratuen kopia merkeagoak eskaintzen dituzte. Duela gutxira arte, adibidez, San Pedro pareko denda batean tela zati bat Joan Pablo II.aren hilobian igurtzitako erlikiatzat saltzen zuten. Vatikanoko bedekapenen birsalmenda ere ohiko bihurtu da zonaldeko merkatarien artean.

Euskal Herritik gertuago, bidaiak erlijiosoek bereganatu duten arretaren beste adibide garbia daukagu: Lourdes. 15.300 biztanleko hiri honek 150 herrialdetako sei milioi lagun hartu ohi ditu urtean eta ostatu gehien eskaintzen duen Frantziako bigarren hiria da: 270 hotel eta 13 kanpaleku. Bernadette Soubirous gazteari 1858an amabirjina agertu zitzaion herriak 720 milioi euroko sarrera fakturatzen du urtero eta erromes bakoitzak batez beste 40 euro gastatzen ditu eguneko. Hori guztia kudeatzeko, turismo bulegoak urtean 840.000 euroko aurrekontua du.

Estitxu Maudes, gaixoei boluntario

Estitxu Maudesek urtero egiten du bidaiak Lourdesera eta negozioa badagoela dio, baina ez hainbeste santutegian bertan, inguruan baizik: “Herria da negozioa egiten duena, eta Lourdesen denda daukaten kanpoko asko eta asko dago. *Souvenir* denda pila daude, ‘Lourdes’ idatzia duten botila hutsekin edo amabirjinaren irudiekin, mota guztietako oroigarriak topa daitezke eta baita bitxi-dendak ere. Gainera, beste edozein herritan bezala, arropa dendak, jatetxeak, diskotekak... daude. Hotel kopuruak, horrek harritzen zaitu batik bat”.

Santutegiak eramaten duen dirua, aldiz, berau kontserbatzeko erabiltzen dela dio, eskaintza ez baita makala: 60 apaiz, monje eta moja; egunero 52 meza sei hizkuntzatan; eta 400 langile eta 100.000 boluntario gaixoen zerbitzura, eraikinen mantentze lanez gain. “Jendeak pentsatzen du ura eramateko ere dirua ordaindu behar dela, baina ez da hala—dio Maudesek—. Bakarrik baldin bazoaz ez duzu ezer ordaindu behar, instalazio guztiak doan ikus ditzakezu, mezara joan zai-



Estitxu Maudesek dioenez, eurak ez doaz Lourdesera sendatzera, lasaitasun bila baizik. Goiko irudietan, Lourdesen gaixoekin eta prozesioa.

tezke edo botila batean nahi adina ur ekarri”. Maudesek, ordea, gaixo talde batekin bidaiatzen du eta ospitale modukoak diren bertako harrera zentroetan pasatzen dituzte egunak, diru truke.

32 urteko irundarra (Gipuzkoa) da Maudes eta elizbarrutiaren baitako Donostiako Lourdesko Amaren Abegi-ONEAN boluntarioa da. Maiatz oro Lourdesera bidaia egitea da elkartearen zeregin nagusia, joan nahi duten gaixoak lagunduz. Berrogeita hamar urte baino gehiago daramatzate txangoa egiten, guztira Gipuzkoa osoko 100 gaixo gazte, 300 heldu inguru eta monitore andana. Hamabost bat autobus eta auto dezente behar izaten dituzte horretarako, euren kabuz antolatuta. Izan ere, touroperadore eta bidaia-agentziek ez dituzte normalean halako lekuetarako *pack* antolatuak eskaintzen, kopuru jakin batetik gorako taldea osatzen ez bada behintzat. Ohikoagoa da taldeak berak prestatutako autobusetan-eta bidaiatzea. Beste kontu bat dira Vatikanoa, Jerusalem eta distantzia handira dauden gunak, abioia, hotela eta abar tartean egonda agentzientzako interesgarriak baitira.

Maudes eta gainontzeko erromesek lau egunez hiru basilikak bisitatzen dituzte, prozesioetan hartzen dute parte eta jolasean aritzen dira, gaixoentzako opor modukoak baitira. Berak dio ez zaiela gustatzen eurekin doazenei gaixo deitzea, erromes baizik. “Gu ez goaz hara inor sen-

Profila

Motibazio erlijiosoengatik bidaiatzen duten gehienak jubilatutako dira, eta familiarekin edo taldean (geriatrikoa, jubilatutako klub bat, parrokia...) joaten dira. Muturreko egoerak bizi izan dituztenek —inguruko norbaiten heriotza— bidaia erlijioso bat egin nahi izatea ere ohikoa da, edo gaixotasunak dituzten kolektiboei. Turismo honek Latinoamerikan du arrakasta gehien.

datzera. Sendatuko denaren esperantzaz doan jendea egongo da, baina nire inguruan ez dut halakorik ezagutzen. Ni fededuna naiz, baina taldean askok ez du sinesten eta hala ere hara joateko beharra sentitzen du, bake bila-edo...”.

Irungo boluntarioaren hitzetan, bada jendea Lourdesera modu guztiz turistikoan joaten dena: “Gozokiak erosten dituzte, basilikako iturrian ilara egiten dute ura hartzeko eta gaixoek prozesioak ikuskizuna bailiran jarraitzen dituzte, espaloitik”. Baina eurak lasaitasun bila doaz, giroan baikortasuna arnasten delako. “Egunerokoan dena da etxetik lanera eta lanetik etxera, asteburuetan betikoa egin, dirua xahutu... Nire ustez, horrek ez gaitu betetzen eta beste zerbaiten bila etortzen gara”.

Mari Karmen Uzkudun, xamanen artean

Beste zerbaiten bila abiatu ohi da baita ere, urtean behin gutxienez, Mari Karmen Uzkudun 47 urteko erreizildarra (Gipuzkoa). Yoga irakasle honek kontatu duenez, aspaldi atea zen, guztiz eszeptikoa, baina duela zortzi urte hondo jo eta orduan esnatu zen, bizitza beste era batera eramatea badagoela konturatuz. “Orain, niretzako bizitzaren erlijioa bakarra da: egia bilatzea, norberak bere barnean, kanpora azalertzeko. Ez naiz inongo erlijioetako eta denetako naiz; pusketak hartu eta nire bidea landa-



Mari Karmen Uzkuduni bere burua ulertzen eta maitatzen eta barne bakea lortzen laguntzen diote bidaiek. Goiko irudietan, Venezuelako bidaiko argazkiak.

tzen joaten naiz, inongo sinesmenen inposaketarik onartu gabe. Indian edota Latinoamerikan erlijioa oso modu desberdinean bizi dute, baina denek gauza berera eramaten zaituzte: barne bake eta lasaitasuna lortzera”.

Motibazio espiritualek bultzatuta, Cristobal Jodorovski guru espirituala bere jarraitzaileekin elkartzen da urtero, munduko herrialde desberdinetan. Uzkudunek bi urte daramatza bidaia horietan parte hartzen: lehenengo Perun izan zen, iaz Venezuelan, eta aurten Mexikon eta Brasilen. Europa osoko jendea elkartu ohi da, energia kontuekin lan egiten duena. Aurten 40 bildu dira, 29 emakume eta 11 gizon; gazteenak 19 urte zituen eta zaharrenak 66. Hiru astez, goizean goiz jaiki eta eguna gorputza eta arima ‘garbitzen’ ematen dute, ur-jausietan meditatzen, edo bertako xamanarekin barne zamak onartzen eta ekin-tza sinbolikoen bidez liberatzen, besteak beste. “Xamanak arimaren medikuak dira: begietara begiratu eta zer zamarekin etorri zaren asmatzen dizute, zein nahigabe eta gaitz dituzun barruan, zer joan behar duzun askatzen... Gure zuhaitz genealogikoan inkontzienteki dakartzkigun zamak seme-alabei igortzen dizkiegu heziketaren bidez eta zama horiek hustea garrantzitsua da. Finean, zure burua maitatzen laguntzen dizute”.

Bidaia horien gastua ez da makala: hegazkina 1.000 euro ingurugatik lortzen dute eta leku

batetik besterako joan-etorriak, xamanak, hotelak eta abar gehituta, kostea 3.000 euro ingurukoa da azkenean. Halere, “hain da handia jasotzen duzuna, zure buruari egiten diozun mesedea, merezi duela”, dio erreizildarrak. Bere esanetan, bidaiek barne bakea lortzen laguntzen diote, bere burua ulertzen eta maitatzen. Iaz, trantzean sartu zen lehen aldiz, eta esperientzia berdingabea izan zuen: “Energia hutsa sentitzen duzu, ez adimen ez emoziorik, energia %100ean; argitasun eta bake izugarria duzu, eta gorputza dardarka”. Buelta gogorragoa izan ohi da, eguneroko bizitzan hango sentsazio, lasaitasun eta argitasunik ez dugulako. “Yogako saioetara etortzen den jendearen artean ikusten dut: zenbat nahigabetu dagoen, zenbat antsietate, zenbat beldur, zer nolako zailtasunak gure sentimenduak besteen aurrean adierazteko...”.

Euskal rankinga

Espiritualtasunaren bidea egiteko, ordea, beti ez dago hain urrutira joan beharrik. Euskal Herrian bertan adibide garbiak ditugu. Done Jakue bidea da, ziurrenik, ezagunena: urtero milioika lagunek erromesaldiari ekiten diote, horrek ibilbideko herriei ekartzen dien onura ekonomikoarekin. Santiago Apostoluaren eguna, uztailaren 25a, igandea bada, Done Jakueren Urtea deitzen zaio –mende batean 14

Santutegiak

XABIER

✓ **Bisitariak:** 100.000tik gora urtean –gazteluan sarrera erosi dutenak kontuan hartuz bakarrik–, batez ere udan eta bereziki Xabierraldia delakoan. 2006an, mendurrena zela-eta, zifrak bikoiztu edo hiru-koiztu egin ziren. Gehienbat nafarrak izan ohi dira eta EAE, Katalunia, Espainia eta Frantziatik ere asko datoz. Atzetik, alemaniarrek, italiarrek, estatubatuarrek, ingelesak eta japoniarrek.

✓ **Bisita:** Gazteluaz gain, museoa, Francisco de Jaso auditorioa, basilika, gogartexea eta XII. mendeko parrokia ditu santutegiak. Bisita gidatua edo aurikularrekin egin daiteke gazteluan barna

(arma plaza, almenak, Omenaldi Dorrea, errezo kapera, Xabierren bizitzari buruzko diorama...).



LOIOLA

✓ **Bisitariak:** Urtean 100.000 pertsona dira Etxe Santutik igarotzen direnak. Santutegitik edo basilikatik pasatzen direnen kopurua ez da kontrolatzen, baina zifra bikoiztu egiten da. 100.000 horietatik

15.000 erromesak dira eta %85a 65 urtetik gorakoak. Euskal Herritik gehienak bizkaitarrak dira eta Herrialde Katalanak, Espainia eta Frantziatik ere bisitari dezente datoz. Atzetik, ingelesak, portugesak, poloniarrek, alemaniarrek, belgikarrek, estatubatuarrek, Ekialdeko herrialdeetakoak eta australiarrek.


✓ **Bisita:** Etxe Santua bisitatzeko audio gidak dituzte, 16 hizkuntzatan, eta Loiolako Iñigoren bizitzari buruzko erakusketa, basilika eta Beato Anai Garateren jaiotetxea bisitatzen dira. Meza ospatzeko aukera ere badago.



ARANTZAZU

✓ **Bisitariak:** Zaila da jakitea, Turismo Bulegotik pasatakoak baino ez baitituzte zenbatzen (20.841 pertsona iaz). Urte osoan Euskal Herriko jendea hurbiltzen da batik bat eta udan atzerritar ugari gehitzen zaizkio.

✓ **Bisita:** Santutegiko bisita gidatuak egiten dira, taldearen ezaugarrien arabera, batzuk Oteizaren arteak erakartzen baititu, besteak santutegiak naturarekin duen lotura, beste hainbat fedeak bultzatuta hurbiltzen dira... Debagoienako Turismoak eskaintzen duen ohiko bisitatik harago zerbait gehiago bilatzen dutenek frantziskotarren laguntza jasotzen dute (amabirjinaren ondora joateko, meza eskatzeko...).



bat aldiz– eta horietan erromesen kopurua are handiagoa izan ohi da.

Santutegien kasuan, hiru dira ospetsuenak: Xabier (Nafarroa), Loiola eta Arantzazu (Gipuzkoan biak). Hirurek bisita andana erakartzen dituzte eta turismo hori inguruko herri eta eraikin erlijiosoetara bideratzeko baliatzen dira. Hala, Xabierko gaztelua ezagutu ondoren Leireko monasteriora joaten dira asko, eta Inaziotar Lurraldea programaren baitan, Arantzazu, Antio eta Loiolako santutegietarako txangoak eskaintzen dira. Xabierko gazteluaren eta Loiolako basilikaren arteko lotura indartu nahi dutela ere azaldu du Jose Luis Cincunegui Xabierko santutegiko arduradunak: “Iñigok eta Frantziskok harreman estua izan zuten Parisko Sorbonan ikasle zirela elkar ezagutu zutenetik, eta euren jaioterrietara bisita bateratuak koordinatu nahi ditugu”.

Ekonomikoki, dena den, turismoak irabazi handirik ez diela ekartzen ziurtatu dute gune erlijiosoetako arduradunek. 2 euro kobratzen dituzte Xabierren, gazteei 1 eta 1,5 taldean joanez gero. “Lehen ez genuen kobratzen –dio Cincunegui–, baina eraikina mantentzeko, zaintzeko eta berrikuntzak ordaintzeko beharrezkoa dela ikusi dugu”. Loiolako santutegian ere 2 euro kobratzen dituzte. “Hala ere –argitu du Ainhoa Vila santutegiko turismo arduradunak–, adibidez atzo gertatu bezala Indiako parrokietatik berrogeita hamar pertsona iristen badira, handik etortzeko ordaindu dutenarekin, ez diegu kobratzen. Dirua ez da irabazietarako, inbertsioak amortizatzeko baizik”. Arantzazun, frantziskotarrek gidatzen

zuten bisita lehen; egun, Debagoieneko Turismoa arduratzen da lan horretaz eta prezioak bes-teen antzerakoak dira: 2 euro bakarka joanez gero eta 1,5 hamarrek taldeentzat.

Karlos Corral eta gogo-jardunen deia

Ohiko bisita turistikoaz gain, gogo-jardunetan parte hartzeko aukera ematen dute leku hauek. Bertako gogartetxeetan, programa oso malguak dituzte urte osoan zehar, fededun nahiz laikoen-tzat: erretiroak, bake egunak, gogo-jardun kato-likoak, erlijio sufi edo islamdarreko jardunaldiak, guretzako exotikoak diren Ekialdeko filosofie-kin lotuta dauden asteburuak...

Karlos Corral getxoztarrak (Bizkaia) 69 urte ditu eta hemezortzi urte daramatza Loiolako gogo-jardunetara joaten. 200 bat euroren truke, aste erdia igarotzen du Aste Santuan, beste 40-45 lagunekin; 50 urtetik gorakoak gehienak.

8:00ak aldera esnatu ohi dira, 9:00etan lehen otoitz una da, gosaldia eta 10:00etan bilera ordua dute. “Gida espiritualak hausnar-keta gakoak ematen dizkigu, oina-riak, eta hortik aurrera gu geu gara gure zamarekin bidea bilatu behar dugunak, erosotasun eta isil-tasunean”, dio Corralek. 12:00ak aldera bigarren elkarretaratzea egi-

ten dute, 13:30ean bazkaria, 16:30ean ekitaldi-ren bat basilikan, askaltze arina, hausnarketa beranduago eta ordu santuren baten edo *via cru-cis*-en baten ostean, afaldu eta deskantsatzera. Irakurketarik, musikarik edo horrelakorik ez da eramaten, kanpoko guztia albo batera uztea gomendatzen baita. Corralen kasuan, Jainkoare-

200 bat euroren truke, programa
malguak dituzte gogartetxeek:
erretiroak, bake egunak,
gogo-jardunak, Ekialdeko filosofia
exotikoekin lotutako asteburuak...

Fraide budista astebetez

Hurrengo bidaian esperientzia desberdina bizi nahi baduzu, eta garrantzitsuagoa dena, horretarako 4.000 eta 5.000 euro artean gastatzeko prest bazaude, turismo zen edo budista da puntakoena. Herrialde desberdinetako 25-30 lagunekoa taldeetan, Txinako edo Tibeteko monasterio-
ren batean zazpi egun pasa ditzakezu, gainontzeko monje budistekin elkarbizitzen eta euren bizimodua eramanez. Nork bere burua ezagutzea da helburua, meditatzen, patioan paseatuz edota ariketa fisikoak eginez, baina baldintzak ez dira edonolakoak: ohea eta bainugela baino ez dituen gelan pasa behar dira egunak, 20-10 gradu zero azpiko tenperaturak jasan, 5:00etan kanpai hotsekin jaiki eta 20:00etan oheratu, zazpi eguneko baraualdia egin behar da, eta erre gabe egon, besteak beste. Gainera, guztiz debekaturik dago monasteriotik irtetea. Hara doazenetako batzuek min fisikoren bat dute eta akupuntura eta masajeak ematen dizkiete bertan.

Euskal Herrian ere, gero eta ohikoagoa da monasterio-
ren batera joatea, asteburu pasa. 30-40 eurogatik lo egiteko gelaxka aloka daiteke eta monasterio handiek eta herrixketako monasterio txiki askok aukera hori eskaintzen dute dagoeneko. Zabaltzen ari den beste bidaia mota bat yoga, kundalini eta halako ikastaroek bultzatutakoa da: egun pare bateko irteerak antolatzen dituzte, monasterio edo egoitzaren batera, ikastaroekin jarraitzeko edota praktika espiritual eta budistak eskaintzeko.



Drepung-eko monasterioa, Lhasan (Tibeteko hiriburua).

kin aurkitzea du helburu, “baina oso jardun pertsonalak dira eta bakoitzak gauza desberdinak bilatuko ditu”.

Azken finean, Turismoreligioso.info webgune-
neko arduradun Francisco Canalsek argi du: hainbat ez dago gustura kapitalismoaren eta hipoteken munduarekin; “gizartearen zati handi bat frustratua dago, ez dago pozik bere lanarekin, eta yoga, filosofia, espiritualtasun... ikastaroak areagotu egin dira. Jendea prest dago dena utzi eta zerbaiten bila munduko edozein lekutara joateko”. Eta hala den bitartean, erlijioaren amuak itsasoko izokin galduak arrantzatzen jarraituko du. ■

<http://www.argia.com/argia-astekaria>

helbidean, Uzkudunek Venezuelara egindako bidaia espiritualaren diaporama.

UROLA JATETXEA

FERMIN CALBETON, 20
20003 DONOSTIA

☎ 943 423 424 · Fax: 943 424 424
urola@restauranteurola.com
www.restauranteurola.com